



Irungo Alardea

Alarde de Irún

1522

**IV. EDIZIOA
2025. URTEA**

IV SAN MARTZIAL ALARDEAREN KULTURA BEKA

Helburua

01

Deialdiaren helburua San Martzial Alardearen inguruko ikerketa kulturala bultzatzea da.

Bekaren zenbatekoa

02

3.000 € gordin.

Ordainketa

03

Banku-transferentzia bidez. 1.000 € 2024ko martxoaren 15ean, eta 2.000 € lana amaitu ostean.

Baldintzak

04

Lanak euskaraz edo gazteleraz aurkeztu ahalko dira. Argitaratu gabeak izango dira. Kulturaren eremukoak izango dira, eta lagungarri izango dira San Martzial Alardearen ezagutzan.

Egileek erabateko askatasunarekin ezarriko ditu ikerketa-lanaren ikuspegia eta arloa: musika, historia, arkitektura, hirigintza, antropologia, soziologia...; egilea aske da lanaren euskarriari eta formatuari dagokionez: ikus-entzunezkoa, komikia, idatzizko agiria edota arte-instalazio bat.

Eskatzaileak adinez nagusi izango dira. Pertsona bakarra edota bi laguneko taldea izan ahalko da.

Eskariak aurkezteko epea Eskaerak

05

alardedeirun@gmail.com helbide elektronikora bidali beharko dira 2025ko otsailaren 29a baino lehen.

Eskaerak jaso beharreko informazioa

06

Eskaeraren formatua askea izango da, beti ere PDF fitxategi batean datorrela. Agiriak, bestalde, honako informazio hau jaso beharko du:

- Eskatzaile(ar)en datuak: Izen-deiturak, NAN zenbakia, jaiotze-data, helbidea, telefono zenbakia eta e-posta helbidea.
- Proiektu kulturalaren txostena, hiru orrialdetan (laburpena, lan-mota, formatua, baliatuko diren iturriak, metodologia...)

Epaimahaia eta esleipen - iragarpenaren data

07

Buruzagien Batzordeak izendaturiko epaimahai batek aztertu eta baloratuko ditu proposamenak. Epaimahaia aske da, hala iritziz gero, saria eman gabe uzteko. Martxoan zehar emango du epaimahaia ebazpenaren berri.

Lana amaitzeko eta emateko epea

08

Laguntza eskatu duen pertsonak edo taldeak 2025ko urriaren 31a baino lehen helaraziko du bere lana, amaituta, arestian esandako helbide elektronikoko berera.

Betebeharrak

09

Laguntza eskuratu duen pertsonak edo taldeak, lana amaitutakoan bere lanaren aurkezpena egiteko konpromisoa hartuko du, Buruzagi Batzordearekin adosturiko toki eta datan.

Halaber, ikerlariak Buruzagien batzordearen esku utziko du bere lana argitaratzeko edota zabaltzeko eskubidea.



www.irungoalardea.com